


# Kez egindako mezuak, Greziatik Australiaraino

DOMUSWRB.IT



Goian eta ezkerrean, Polibio, ke seinale sistema konplexua asmatu zuena; eskuinean Txinako Harresi Handia, ke seinaleak zabaltzeko kanal eraginkorra. Alboko argazkian: iragan abuztuaren 13an Usina do Gasômetron (Porto Alegre, Brasil) aurtengo irailean egingo den Mercosurren 9. biurtekoa iragarri eta ekitaldiko zuzendaritza taldea aurkeztu zuten ke seinaleak erabiliz. Biurtekoak, besteak beste, komunikazio estrategia tradizionalak berrinterpretatzea izango du xede.

MEGALOPOLI (ANTZINAKO GREZIA), K.a. 150. Polibio historialariak (K.a. 200-118) informazio konplexua distantzia handitan oso azkar zabaltzea ahalbidetzen zuen komunikazio sistema asmatu zuen. Grezierazko karaktere alfabetiko bakoitzari zenbaki bat esleitu zion eta zenbaki horiek urrutira transmititzeko hainbat su edo zuzi erabili zituen. Hots, kearen bidez zenbaki multzoak igorri zitezkeen, eta Polibioren kodea jakinez gero, zenbaki multzoak hitz bihurtzen ziren. Zenbakiak hizkietan itzultzeko kode horri Polibioren Karratua deritzo, eta historian zehar kriptografian oso sistema ezagun eta erabilia izan da.

Baina greziarrak ez ziren Antzinaroan ke seinaleak erabili zituzten bakarrak izan. Txinako Inperio zabalean ere komunikazio sistema azkar eta eraginkorra behar zuten, eta bide bikaina eraikia zuten horretarako: Harresi Handia. Etsaien erasoen berri emateko, harresiko soldaduek ke seinaleak bidaltzen zituzten. Dorrez dorre, mezuak ehunka kilometro egin zitzakeen ordu gutxitan.

Filmei kasu eginez gero, Iparmerikako indioak izan ziren ke seinaleen erabiltzaile nagusiak. Ikusi dugu ez zirela ez bakarrak ez lehenak izan, eta haien sistemek ez zuten Polibioren kodearen sofistikazioerik. Jatorrian, tribu bakoitzak bere seinale sistema zuen, ziurrenik, arerioak igorri nahi zituzten mezuak uler ez zitzaizkien. Baina kolonizazioak etsai komuna ekarri zion, eta oinarritzeko seinale batzuk behintzat bateratu zituzten: ke bola batek adi egoteko esan nahi zuen, bi bolekin dena lasai zegoela adierazten zuten, eta hiruk arazoak eta arriskuak iragaritzen zituzten.

Oro har, kezko seinaleak arrotzen presentzia jakinarazteko erabili izan diren arren, Australiako aborigenek alderantzizko metodoa erabiltzen zuten: lurralde arrotzean sartzen zenak bidaltzen zituzten ke seinaleak, bertakoei han zegoela eta arazorik nahi ez zuela jakinarazteko.


Gaur egun, bada oraindik denok ulertzen dugun ke seinalea erabiltzen duen instituzio bat: ke zuriak *Habemus Papam* esan nahi du. ■

## Arrastoak

### Zergatik dute zuloa donutek?

DOUGHNUT hitzaren jatorria garbia da: *dough* hitzak oreka esan nahi du eta *nut*-ek, berriz, intxaurra. Ez dago hain garbi gizakia noiz hasi zen intxaurrezko opilak egiten, baina Erdi Aroan dagoeneko egiten zituztela uste da. 1803an aipatu zituzten Ingalaterrako erreza liburu batean, baina donut haiek ez zuten erdian zulorik. Hori bai, oso zaila zen ore guztia berdinean egostea eta maiz opilaren erdiguneko oreka gordinik geratzen zen.

1916an emandako elkarrizketa batean, Hanson Gregory itsas kapitain estatubatuarra adierazi zuen berak asmatu zuela donutaren zuloa, 1847an. Artean, Gregoryk 16 urte besterik ez zituen, eta merkatari-tza ontzi batean lanean ari zela, intxaur opilaren erdigune gordinaz nazkatuta, erdian zulo bat egitea bururatu omen zitzaion. Eskura zeukan piperbeltz ontzia hartu, opilaren erdigunea zanpatu eta horrela sortu omen zuen forma ezaguna. Gero amari esan omen zion “sekretua”. Eta forma hura berehala zabaldu eta nagusitu zen. ■



FOODS FOR THE SOUL